

2022ko Miri Udalekuak

Barakaldo



COVID 19ak ERAGINDAKO EGOERAREN ARABERA ETA OSASUN AGINTERIEK AHOLKUEI JARRAITUZ, PROGRAMAK ALDAKETAK JASAN DITZAKE.

Datak eta lekuak

Udako oporretan, hainbat hiri-udaleku eskainiko zaizkie 2010-2019 aldian jaio eta Barakaldon erroldatutako umeentzat.

1. txanda.

Uztailaren 4tik 15era. (10egun).
4a izan ezik, jaieguna da eta.

1 aldea: Gurutzeta:

Juan Ramón Jiménez HI. 90 toki.

2 aldea: Barakaldo:

Alkartu HI. 110 toki.
Ibaibe HI. 110 toki
El Pilar HI. 110 toki.

2. txanda.

Uztailaren 18tik 29ra. (10egun).
25a izan ezik, jaieguna da eta.

1 aldea: Gurutzeta:

Juan Ramón Jiménez HI. 80 toki.

2 aldea: Barakaldo:

Alkartu HI. 100 toki.
El Pilar HI. 100 toki.

Plaza horien % 5 % 33ko dibertsitate funtzional fisikoa edo psikikoa edo handiagoa onartuta duten umeentzat gordeko dira. Aurretiko inskripzioan txostena aurkeztu beharko da. (Ez dira erreserba horretan sartuko modu ofizialean onartutako dibertsitate funtzionala ez dakarten ikaske-ta-nahasmenduak, portaera-nahasmenduak eta antzekoak).

Txanda bien aukera egin daiteke, baldin eta familiak bere umea udalekuen txanda bietara bidali nahi badu. Kasu horretan, izena emateko fitxa bakarria bete beharko dute, eta txanda biak adierazi.

Lehenengo txandan bezala bigarrenean ere, epealdi bakoitzerako zein ikastetxe nahiago duten adierazi beharko dute.

Antolakuntza arazoak direla tartean, eskaintako ikastetxeen ordez beste ikastetxe batzuk eskaini ahal izango dira.

Jantokia

Toki guztiek izango dute jantoki zerbitzua, aukeran.

Elikagai jakin batzuek intolerantzia edo/eta alergia eragiten baldin badiote norbaiti, izena-emateko orrian adierazi beharko du, bai eta adierazitako intolerantzia edo alergia egiaztatzen duen mediku-txostena erantsi ere.

Ordutegia

Parte-hartzaile guztientzako sarrera ordutegia 8:15etik 9:00etara bitartekoa izango da. Irteera-ordutegiak desberdinak izan daitezke jantoki zerbitzua dela-eta, egindako aukeraren arabera. "Jantokia ez" aukera egin dutenentzako irteera-ordutegia 14:00etatik 14:15era bitartekoa izango da. "Jantokia bai" aukera egin dutenentzat, berriz, 15:00etatik 15:15era bitartekoa.

Hizkuntza

Euskara. (Hala ere, euskara maila ez da baldintza erabakitzailea izango). Udalekuetan egingo diren jardueretako batzuk ingelesez egingo dira.

Izena emateko epea

Apirilaren 4tik 13ra. Itxaron zerrendan gertuko dira epe horretatik kanpo izena eman dutenak.

Izena emateko lekua

Izen-ematea on line egingo dute BakQ txartel elektronikoa duten familiek, Barakaldoko Udalaren web orrian sartuta: egoitza elektronikoa (bilatzailean idatzi "Udalekuak"). Bestela, telefonoz ere egin daiteke 010 zenbakira edo zentro zibikoetara edo kultur etxeetara deituta ohiko ordutegiaren barruan.

*BakQ txartela doan eskuratu daiteke herritarren arretarako zerbitzuetan. Ez dago hitzordua eskatu beharrik.

Prezioa

Hileko diru-sarreraren arabera tartea.

1 tartea: 0-889,88 € bitarteko diru-sarrerak edota Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta ja-

sotzen duten familiak edota GET programan parte hartzen duten adingabeak edota harre-ra-etxeetako adingabeak.

Jantokirik gabe: 11,30€

Jantokia barne: 11,30€

2 tartea: 889,89tik 978,88ra.

Jantokirik gabe: 21,40€

Jantokia barne: 21,40€

3 tartea: 978,89tik 1076,78ra.

Jantokirik gabe: 31,50€

Jantokia barne: 31,50 €

4 tartea: 1076,79tik 1184,47ra.

Jantokirik gabe: 51,80€

Jantokia barne: 61,90€

5 tartea: 1184,48tik 1302,93ra.

Jantokirik gabe: 72,00€

Jantokia barne: 87,10€

6. tartea: 1302,94tik gora.

Jantokirik gabe: 92,20€

Jantokia barne: 112,40€

Hiri-udalekuetan seme-alaba (neba-arrebak) bat baino gehiago dituzten familiei honela aplikatuko zaizkie tarteak:

lehen seme-alaba: diru-sarreraren arabera dagokiona baino tarte bat txikiagoko zenbatekoa (aplika daitekeen gutxienekoa, 1. tartea).

Bigarren seme-alaba: diru-sarreraren arabera dagokiona baino bi tarte txikiagoko zenbatekoa (aplika daitekeen gutxienekoa, 1. tartea).

Hirugarren seme-alaba eta ondorengoak: diru-sarreraren arabera dagokiona baino hiru tarte txikiagoko zenbatekoa (aplika daitekeen gutxienekoa, 1. tartea).

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten familien edo GET programan eta/edo harrera-etxeetan parte hartzen dutenen kasuan, ez da beharrezkoa izango dokumenturik eranstea, Udalak berak egin ahal izango baititu beharrezko egiaztapenak.

Tarteak kalkulatzeko, baterako aitopenenak bada, likidazio-oinarri orokorra zati 14 egin behar da; eta banakakoak edo bereziak badira, berriz, kide bakoitzak aurreko eragiketa egin behar du, eta ondoren, emaitzen batuketara.

Zozketa

Plazak zozketa elektronikoen bidez adjudi-

katuko dira; zozketa apirilaren 26an egingo da.

Hain zuzen ere, eskaera-zenbaki bat hautatutako da zoriz, eta haren ondokoekin eraturiko dira txanda eta ikastetxe guztietako onartutakoen zerrendak.

Zozketaren emaitzak Barakaldoko Udalaren web orrian agertuko dira, zerrenda batean (Egoitza Elektronikoa: bilatzailean "Udalekuak" idatzi behar da): umea onartu den edo ez zehaztuko da, eta onartutakoen kasuan plaza zer ikastetxetan dagoen adieraziko da.

Ordainketa

Umea udalekuetarako onartzen bada, autolikidazioa bidaliko da aurretiko inskripzioan adierazitako helbidera. (Mese-dez, egon adi mezu elektronikoa noiz helduko, eta begiratu ohiko postontzian eta spam-ontzian zer dagoen). Mezurik jaso ezean, herritarren arretarako zerbitzuetan, zentro zibikoetan eta kultur etxeetan eskatu ahal izango da, eta postaz ere bai (laboin@barakaldo.eus), adingabearen izena eta adjudikatutako udalekua zehaztuta.

Prezioa adierazitako aldian ordaindu ezean, plazari uko egin zaiola pentsatuko da, eta itxaron-zerrendako lehenari emango zaio (plaza eskuratu dezakeela jakinaraziko zaio).

Matrikularen diru-kopurua jarduera etenez gero soilik itzuliko da.

Adjudikatutako plazari uko egin nahi dioten familiek mezu elektronikoa bidali beharko dute laboin@barakaldo.eus helbidera, adingabearen izena eta ikastetxea zehaztuta. Horrela azkarrago artatu ahal izango dugu itxaron-zerrenda.

Udalekuak elkarrekin egoteko eta balioak ikasteko tokiak dira; horregatik, ezinbestekoak dira elkarbizitzarako eta lankidetzarako arauak. Arauok betetzen ez dituzten umeak udalekutik kanporatuko dira.



info: www.barakaldo.eus/BarakaldoAPP

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

